

IPARRALDEKO HERRI-IPUIN IDATZIAK

Donostia, 1992-III-26

Emile Larre

Ezin mugatua dela herri ipuinen zerrenda: horixe, denok dakigun egia. Herria herri denetik eta herria herri denekotz.

Konda errexagoa, herri ipuin *idatziena*. Hauk berak ere haatik konda ahala baino gehiagokoak direla nork ez daki. Uste dut asko eta asko aurkituko ditudala bihar eta etzi, zerrenda hontan hutsegín ditudanak, bai-eta hemen zareten nor-nahik ezagutzen ditutzuen asko ere.

Nihauk ere, ez izanez bakarrik bulego gizona edo erakasle ere, baizik beste lan askotan nabilana, nere apaiz lanetarik eta kasetalaritzara, beste batzuetan barna, nahiago izan dut norbaiten laguntza eskatu, zerrenda honen osatzeko, Belokeko komentu iturri onean, egiaren salatzeke. Eskerrik beroenak hain zuzen etxe horretako Iratzeder adixkide euskaltzainari bere laguntza haundia gatik.

Ondotik dauzkadan, Mayi Ariztia, Jean Barbier, Xalbat Arotçarena eta hainbesteren ipuin eta denetan sakabanatuez bestalde hor daude, besteak beste.

– *Baigorriko zazpi liliak* (Jean Duvoisin).

– *Ipar Euskal Herriko legenda eta ipuinak* (Cerquand, Txertoa argitaldaria).

– *Ixtorio mixterio* (P. Lafitte), Orpustanek argitaratuak.

– Beste asko, *Herria* eta denetan biltzekoak.

– J.H.U.ren bat ere, egun hauetan ateratzen den, haren seigarren eta azken liburuan (Mattinen Eguberriak).

Bildu ditugunen zerrenda luzea izana gatik, hor daude ere beste guziak.

ALMANAKA

Iragan mendean Etcheverry apaizak hasi zuen aldizkari hau ditake eskupean izan ditugunetarik xaharrena, duela hamar urte doi-doia Piarres

Lafitten azken xahartasunean gelditua. Beharko ditu norbaitek aurkitu lehen hamarkadetakoak. 1927tik goitikoak ditugu Belokeko fraidetxean bilatu. Huna aldizkari horretan begiztatu herri ipuinen zerrenda bat.

- 1927 (39-44 orr.) Martin-Ttipiren
 “Etsai eta... ongi egile”
- 1928 (69-70) “Jondone Phetiri” (P.P.)
- 1929 (76-79) “Hiru aneak”
- 1929 (74-75) “Johane” (P.P.)
- 1929 (51-53) “Astoaren maltzurkeria”
- 1929 (34-35) “Jeiki, jeiki” (P.P.)
- 1932 (84-86) “Gaixo Pierraño”
- 1932 (67-68) “Apez arraintzalea” (Lapurtarra)
- 1932 (57-61) “Betti azkar” (D. Etchegoyen)
- 1932 (53-55) “Pierrañi Ourdaiñen Arrosarioa” (Pette Zibero)
- 1933 (27-29) “Oihal xuriarekilako gizona” (Arnaud Idiartegaray)
- 1933 (49) “Ogi azala”
- 1933 (70-72) “Jakintsun perttoli” (Yomingo)
- 1933 (73-74) “Kadeten Abornak” (Pette Zibero)
- 1933 (84-87) “Frntses Mendi-handi” (Menditarra)
- 1934 (55-56) “Aita kaputxinaren kartak”
- 1934 (138-139) “Igandea Jaunaren Eguna” (Arbelbide)
- 1935 (35-36) “Batita zeruan” (Zerbitzari)
- 1935 (39-40) “Ihiztari ixtorio bat” (Zerbitzari)
- 1935 (92-93) “Pello” (Zerbitzari)
- 1936 (30-32) “Zeruko itzulia” Pierre Harignordoquy
- 1936 (55-56) “Bi eliza xoriak” (S.C.)
- 1936 (57-58) “Jelosia gauza itsusia”
- 1936 (85-86) “Debruaren ipuina” (Th. Lartigue)
- 1936 (90-91) “Ostalu” (P. Zibero)
- 1936 (91-92) “Pinta bat” (P. Zibero)
- 1937 (39-40) “Larrat sorgina”
- 1937 (47-50) “Barkatu!... Uste nuen” (Ostopenarra)
- 1937 (49-50) “Manez ohoina” (Zerbitzari)
- 1937 (55-56) “Oskigiliaren Adixkidea” (P. Zibero)
- 1937 (109) “Karlosen bihotz ona” (Zerbitzari)
- 1938 (54-55) “Joku bat”
- 1938 (65-66) “Xoane Mitrero”
- 1938 (69-70) “Alki prestuz emanaren ordaina”
- 1939 (77-78) “Gizon hiltzaileak” (J.B.)
- 1939 (81-83) “Orobil muslaria”
- 1939 (117-118) “Zilarrezko ezkila” (Pilale)
- 1939 (120-121) “Pette Ziberotarra zelian” (Kukullero)
- 1950 (21-22) “Azken zortaraino” (X.G.)
- 1951 (13-15) “Ahate basak” (L. Leon)

- 1951 (20-21) "Alargunaren bi alabak" (X.X.)
 1951 (25-26) "Auzi bat"
 1951 (33-34) "Sagu baten lana" (Baxenabartarra)
 1951 (47-48) "Kattalin eta Pello" (Nehor)
 1952 (29-30) "Trukaria"
 1952 (49-51) "Errekaxilo" (Pette Zibero)
 1953 (25-27) "Joanesen begi gorriak" (L. Leon)
 1953 (34-36) "Espos berri" (P.L.)
 1953 (50-51) "Ezkilaren errana"
 1953 (51-52) "Largo"
 1954 (14-15) "Aitaxoren ixtorioak"
 1954 (17-19) "Hiru apailuen parioa" (P.G.)
 1954 (23-25) "Errekaziloko meza" (Nehor)
 1954 (26-27) "Jesus Jauna eta Jondoni Petri" (P.G.)
 1954 (39-41) "Haurkeria, sineskeria eta sorginkeria" (X.Z.)
 1954 (42-43) "Merkena" (Zentzudoi)
 1954 (45-47) "Merkatu ondo" (Garazi)
 1955 (19-20) "Chintchimariak" (J.B.)
 1955 (43-45) "Fraidearen purgatorioa"
 1955 (46) "Titulika papaver"
 1955 (51) "Tanta Grachi" (Kaiet)
 1956 (15-16) "Jendetasuna" (Piarres)
 1956 (52-54) "Ezin orroit" (Kondari xaharra)
 1956 (59-60) "Etxexoriak" (Parabolaria)
 1956 (61-63) "Argia ezin ufa" (Madarialde)
 1956 (15-17) "Orobil muslaria" (L. Leon)
 1956 (22) "Bi erbi tiro batez" (Garaztarra)
 1956 (47-48) "Otoitzean" (F.T.)
 1957 (59-60) "Neskato baliosa" (Rip)
 1957 (63) "Emakoxu gizen" (J.H.)
 1957 (64) "Pelot Hendaiarra" (Kostatarra)
 1957 (65-66) "Ampallatzerat" (E.D.)
 1958 (19-20) "Antonio Gezur" (Oxobi)
 1958 (29-32) "Besta Berriz jaun Merak bazkari" (J.E.)
 1958 (39-40) "Antonio zuhur" (Oxobi)
 1958 (53-54) "Antoni Zokogorri eta Manex Burupelat"
 (J. Berriondo)
 1959 (14-15) "Donibaneke merkatian" (Manezaundi)
 1959 (38-39) "Tresna tzar bat" (Manezaundi)
 1960 (16-18) "Oihuntzako Andredena Mariaren iturria" (Piarres
 Hegitoea)
 1960 (33-35) "Heraustako aintzira" (L.D.)
 1960 (39-41) "Harpe solas" (Mendizabal)
 1960 (42-43) "Eguberriko Arbolaren ixtorioa" (Paristarra)
 1960 (48-49) "Beltxu" (Duhalde)

- 1960 (55-56) "Haxia makur" (Mendizabal)
 1960 (61) "Gizon esker onekoa ta esker gabea" (Zaiholarra)
 1961 (21-22) "Haur goixtiarra" (Zubero)
 1961 (37-38) "Nola aberastu zen Pete Burrunba" (Zepuru)
 1961 (39-40) "Beherapeneko onjo saltzaileak" (Piarres Hegittoa)
 1961 (47-49) "Eiherazaina eta lau semiak" (G.E.)
 1962 (45-56) "Jaun Erretoraren gasna" (Piarres Hegittoa)
 1963 (46-47) "Matxiren galtzak" (J.P. Iratchet)
 1964 (31-32) "Jaunaren sudur hotza" (Piarres Hegittoa)
 1966 (15-16) "Eguberri xahar bat" (Piarres Hegittoa)
 1969 (64-66) "Eskualdun bazkaria" (J. Etchepare)
 1971 (25) "Errege ta eskalea" (J.B.E.)
 1971 (61) "Behia eta Mari-orratza"
 1972 (62) "Ezin obratuzko mirakuilua" (Batita)
 1974 (17-19) "Matxi-ren urrikia" (Otto Piarre)
 1974 (23-24) "Kalixtro" (Zerbitzari)
 1974 (39-41) "Auritzeko aztia" (Txitximurru)
 1976 (25-30) "Mari-Ederren ezkontza" (J.S.P.)
 1976 (37-39) "Tori drago bat" (Barbier)
 1976 (61-63) "Egiazko adixkidea" (Eiherazaina)
 1977 (37-38) "Amatxiren ezkontzina" (Eiherazaina)
 1977 (41-44) "Eltze egilearen zakurra"
 1977 (67-69) "Barkatu!!! Uste nuen" (Zepuru)
 1980 (25-26) "Seroraeneko Mariana eta hiru ohoinak"
 1980 (53-54) "Otsoa eta axeria partzuer" (Eiherazaina)
 1981 (46) "Tripa kontu"
 1981 (59) "Presoneraren segetua" (X.X.)
 1982 (55-58) "Espos berri" (1941an Eskualzaleen Biltzarrak sarizatua)
 1934 (29-34) "Burrumbundum Parabisuan" (Ostopenarra, hau Gazteen Almanakatik)

Ikertu gabeak (Beloken ez direlako!) 1930, 1931, 1945, 1948, 1979ko *Almanakak*.

GURE HERRIA ALDIZKARITIK

- 1921 (95-99 orr.) "Arto xuritzetan" (Zerbitzari)
 1921 (283-287) "Mandozainaren ixtorioa" (Lurtxuri)
 1921 (380-382) "Arto xuritzetan" (Zerbitzari)
 1921 (402-408) "Hiru ixtudiantak" (H.J.)
 1921 (439-444) "Mari Ederren ezkontza" (Lutxoki)
 1921 (499-502) "Arto xuritzetan" (Zerbitzari)
 1921 (672-675) "Arto xuritzetan" (Zerbitzari)

- 1922 (30) "Arto xuritzetan" (Zerbitzari)
 1922 (154-158) "Juan Soldadoren ixtorioa" (Lurtchuri)
 1922 (204-207) "Arto xuritzetan" (Zerbitzari)
 1922 (278-279) "Erran zahar bat" (Lurtchuri)
 1922 (328-337) "Ganich Artzaina" (Lurtchuri)
 1922 (328-337) "Ganich Artzaina" (Lurtchuri)
 1922 (476-479) "Arto xuritzetan" (Zerbitzari)
 1923 (97) "Ondicola eta Lutchoki" (Lurtchuri)
 1923 (159-164) "Maittipi" (Oxobi)
 1923 (528-533) "Urtsuan gaindi Makeara" (L. Leon)
 1924 (5-10) "Gaizo auzapeza" (L. Leon)
 1924 (296-301) "Joanesen begi gorriak" (L. Leon)
 1925 (82-87) "Harrichalen bezala, beti" (Lurchuri)
 1925 (158-160) "Bautista Baztandarra" (Haizbelar)
 1925 (313-315) "Uchalle" (Haizbelar)
 1925 (661-665) "Bichintchoren predikua" (Zerbitzari)
 1926 (77-82) "Ahate basak" (L. Leon)
 1926 (95-100) "Zorra ordaindua" (Mayi Elissague)
 1926 (176-179) "Debrua preso" (Ferdinand Dospital)
 1926 (213-217) "Jauberriko Erramun" (Piarres Lafitte)
 1926 (273-278) "Harpeko haurra" (Piarres Lafitte)
 1926 (720-725) "Haur-eder I" (L. Leon)
 1927 (18-21) "Haur-eder II" (L. Leon)
 1927 (441-443) "Mariluz" (Zerbitzari)
 1928 (172-176) "Ispicho bat" (L. Leon)
 1928 (197-200) "Tomas Bixkarbide" (L. Leon)
 1928 (272-275) "Bihurriko medikua" (L. Leon)
 1928 (327-330) "Emozu gako" (L. Leon)
 1928 (390-393) "Arima herratii bat" (P.P.)
 1928 (422-426) "Pilotari xaharra" (Jean Elissalde)
 1929 (71-76) "Agosti eta Pheti" (Dominique Behety)
 1929 (199-203) "Bakotxak bere aldi" (Mayi Elissague)
 1929 (405-410) "Murtuts I" (P. Ithurralde)
 1929 (517-520) "Murtuts II" (P. Ithurralde)
 1930 (51-53) "Bakotcha bere lanetan" (Achigar)
 1930 (112-116) "Pellot Hendaiarra" (Erramun Oihenarte)
 1930 (455-460) "Arima herratiak" (Pette Chibero)
 1931 (42-45) "Anttoni Zokhogorri" (J. Berriondo)
 1931 (108-112) "Chemarti" (Dominique Behety)
 1931 (221-224) "Anttoni Zokhogorri eta Manech Bürüpelat"
 (J. Berriondo)
 1931 (457-458) "Bi murru choriak" (Simon Erramouspe)
 1932 (104-110) "Bochkaleten makila xarmatua" (L. Leon)
 1932 (205-210) "Oihal xuriarekilako gizona" (Arnaud Idiartegaray)
 1932 (402-408) "Allande Ordokidoi" (Dominique Behety)

- 1932 (504-510) "Kaloka eta Pupuñi" (J.B. Mageris)
 1933 (193-196) "Izebaren ordenua" (L. Leon)
 1933 (319-325) "Sarako mendietan" (P. Saratarra)
 1934 (19-23) "Amatchiren eltchegorra" (L. Leon)
 1934 (496-498) "Degro Parot degria" (Pette Chibero)
 1935 (301-303) "Harotza eta erretora" (S. Erramouspe)
 1935 (398-401) "Pettanen jukutria" (Jean Delgue)
 1935 (481-490) "Beltzuntzeko gazteluko gertakaria" (J. Baylles)
 1937 (210-219) "Artho Chouritzia" (Pierra Jaury)
 1938 (219-225) "Allande eta hiru astronomoak" (P. Larzabal)
 1938 (292-295) "Urthe on!" (L. Leon)
 1938 (296-301) "Bettirien lehen astia Zouhourteko olhan" (Pierre Jaury)
 1950 (46-53) "Mousde Küküllero deputatiaren hountarizona" (Jean Etchegoyen)
 1951 (24-25) "Garizuman su" (Berrizarte)
 1951 (249-253) "Antton eta Kayet" (A. Aguerre)
 1953 (145-148) "Barkatu... Uste nuen" (Zephuru)
 1955 (156-160) "Untzaren faltaz" (P. Larzabal)
 1956 (125-128) "Pako eta Pello" (J. Etcheverry)
 1956 (355-364) "Azular zaharraz" (Kondaira polli zenbait) (J.M. Barandiaran)
 1957 (367-371) "Etxekoak" (J. Etchepare)
 1958 (249-253) "Donadoa (J. Etchepare)
 1958 (347-350) "Choria eta sugea"
 "Lupien bisita"
 1958 (375-378) "Eiheraberriko zubi zaharra" (Piarres Heguitoa)
 1958 (379-381) "John de Cize-Gauez Gau" (Piarres Heguitoa)
 1959 (377-382) "Mendekoste gereziak" (Jean Etchepare)
 1961 (350-352) "Adin gaixtoa deitzen dena" (Ande Reño)
 1963 (57-60) "Ahatto bihotz beratcha" (Ande Reño)
 1963 (118-122) "Erran dautate" (Chimun Chori)
 1964 (86-94) "Urdea hil dugu" (P. Larzabal)
 1964 (252-253) "Aldudeko ixtorio xahar zonbait" (E. Bidegain)
 1970 (32-42) "Antxixarburuko buhamiak 1897ean" (J. Barbier)
 1970 (99-108) "Antxixarburuko buhamiak 1897ean" (J. Barbier)
 1970 (182-187) "Antxixarburuko buhamiak 1897ean" (J. Barbier)
 1970 (378-380) "Haurra eta xinaurria" (L. Aizaguer)
 1971 (236-254) "Har-uz-ka" (I) (Zephuru)
 1971 (303-316) "Har-uz-ka" (II) (Zephuru)
 1972 (129-133) "Larrazken eta Udaberria" (Etcharren-Lohigorri)
 1972 (341-343) "Baxenabarreko bi kondaira" (M. Gombault)
 1973 (7-23) "Azken elurra I" (Mikelau Ainerabelar)
 1973 (81-97) "Azken elurra II" (Mikelau Ainerabelar)
 1973 (147-160) "Azken elurra III" (Mikelau Ainerabelar)

1973	(243-252)	“Azken elurra IV” (Mikelau Ainerabelar)
1973	(275-288)	“Azken elurra V” (Mikelau Ainerabelar)
1973	(361-384)	“Azken elurra VI” (Mikelau Ainerabelar)
1974	(55-64)	“Azken elurra VII” (Mikelau Ainerabelar)
1974	(97-108)	“Azken elurra VIII” (Mikelau Ainerabelar)
1974	(365-370)	“Eskuina eta ezkerria” (P. Larzabal)
1976	(186-189)	“Eguberriko mirakuilua” (Eiherazaina)
1976	(305-310)	“Purruskeria batzu” (Hura ta bera)

OTOIZLARI BELOKEKO ALDIZKARIA

Hau hasi zen 1954an eta gelditu Xabier Diharce Afrikara joan zelarik azken urte hauetan. Hona hartarik hartu ipuin titulu batzuk.

Ignace Etchehandirenak

– “Agian ez egia”	26	340
– “Amaren harritzea”	32	459-460
– “Arnoa”	22	268
– “Arno ona”	33	483-4
– “Astoa baino astoago”	26	339-340
– “Axeria bere zepoan”	32	459
– “Ba ote?”	13	121-2
– “Bazka”	27	355
– “Behia kordatik”	50	27
– “Bi mañaterak”	11	100-1
– “Bi ohoinen artean”	51	39
– “Desertuan”	28	372
– “Deusik ez entzuten”	50	26
– “Ehun urtetarat nola hel”	36	556
– “Eliz-satorra”	91	32
– “Emaztea nausi”	24	303
– “Emazu bost”	24	308
– “Esnea eta gazura”	10	86-87
– “Ezin usa”	51	39
– “Ezkondua ala ez”	91	34
– “Garaziko xoko batean”	30	412
– “Ilargia”	27	365
– “Kalixtro eta Kanuto”	30	411-412
– “Kolera”	9	80
– “Kreaztuak ere”	50	26-27
– “Magnifikatean xuti”	22	268
– “Maite baino maiteago”	39	37
– “Mediku berri”	91	33-4

– “Onjo basa”	52	47
– “Pegar hutsa”	8	72-73
– “Sinestea eta zentzua”	33	483-4
– “Tipula buru bakarra”	52	47
– “Zahar joko”	37	580
– “Zaldia estekan”	52	47
– “Zeruko atean”	51	39
– “Zoinak merkeago”	31	435-6

Amattoren uzta (Mayi Ariztia)

(142 orrialdeko liburuttoa, erdia frantseserako itzulpena). Horgo tituluak:

– Mutil baten ixtorioa	10
– Atxular apezarena	18
– Atxular oraino	24
– Arotxaren ixtorioa	28
– Fede ukatu baten ixtorioa	32
– Mutil gaizo baten eta Birjina Maria...	36
– Isasoar baten ixtorioa	46
– Ama alaba batzuen ixtorioa	50
– Arttoren ixtorioa	62
– Hartz-kumeren ixtorioa	72
– Kamelu baten ixtorioa	88
– Gizon pobre baten ixtorioa	100
– Hiru anaia arriben ixtorioa	116
– Errege itsu baten eta hiru semeen	122

Murtuts eta bertze P. Iturralde (Elkar argitaldaria)

– Largo	87
– Etxeko borta	91
– Ezkilaren errana	95
– Konkorra	99
– Egia eta gezurra	103
– Dendariak	107
– Matalas	111
– Andere esposa gabeko ezteiak	117

Diarres Adame (J.B. Elissamburu) (Elkar argitaldaria)

Ixtorio Mixterio (Jean Barbier)

I. Laminak

– Laminak Senperen-Utsateko zubian	1
– Lamina eta otsoa	7

– Dominixtekun	11
– Laustaneko jauregia	15
– Lamin-Eltzea	17
– Mundarraingo Laminak	19
– Laminak Behorlegi-mendin	21
– Laminak Bazterretxean	23
– Laminak Lakharen barnean	25

II. *Jesus Jauna eta Jondoni Petri*

– Ogi jotzea	31
– Boketa	34
– Ogi-Ezpalak	36
– Ezkontzak	37
– Emazteki zirtzila eta emazteki garbia	38
– Emaztearen eta debruaren buruak	39
– Jondoni Petriren zaldia	40
– Orga uzkailliak	41
– Zaldi ferra eta gereziak	42
– Urre-zilarrak elorri xurian	44
– Espainia eta bakea	46
– Jainkoaren begia	47
– Onak eta gaixtoak	48
– Ihizko hesia	49
– Dafaila, astoa eta makila	50
– Harria eta behi ongarria	56
– Bi beso, bi zango, sabel bakar bat	57
– Trentekutxilo	58
– Erregina bat oihanean	63
– Kuiak	73
– Zazpigarren manamendua	74
– Bardotze	75
– Miarritzeko aintzira	76

Legendes du Pays Basque Illustr (Tillac)

– Meza mixteriozkoa	124
– Salbatoreko ganderailua	126
– Xaindia	126-127
– Tartaroa	127-128
– Haxko eta haren bi lagunak	129-32
– Erregea, tupina eta xixtua	132-134
– Artzaina errege	134-137
– Axeria eta jaun kapitaina	137-138
– Zazpi ohoiak	138-140
– Erraldia ahur hutsean	140

– Andre alferra eta kukusoak	140
– Berho guzien gainetik	141-142
– Hiru ixtudiantak	142-144
– Mutiko zozoa	144-146
– Marro beltz ardi	147-149
– Baigorriko aingerua	149-150

III. *Supazter xokoan* (Jean Barbier) (Klasikoak 16)

– Zikiro azpia	42-46
– Larrondo guardaren kurutzea	47-51
– Anpallatzerat, Martin	52-53
– Eguerriko kondaira	56-60
– Kauserak eta kruxpetak	61-78
– Botua... botu	79-82
– Alkate Jauna	83-86
– Piarresen galtzak	87-91
– Gaizo Piarres	92-96
– Gauden eskualdun (antzerki)	97-110
– Xintximariak	115-118
– Bederatzigarren astoa	119-122
– Zubietako debrua (antzerki)	123-144
– Xoane Mitrero	145-147
– Xoane eta Xaneta	148-152
– Iretsi... hortzak?	153-157
– Tori drago bat	184-187
– Sorginak (antzerki)	158-183
– Pedeiku bat pollita	188-190
– Ezkila xarmatua	191-195
– Jaun Erretoraren zapata	196-199
– Lohilakat	200-205
– Xilintxa sorgina (antzerki)	206-214

Har-uz-ka (*Zephuru*) (Xalbat Arotçarena)

– Nola aberastu zen Pettan Burumb	3
– Heustarreko aintzira	7
– Urre-ezpalak	10
– Lemonako zubian	12
– Petra-landan	14
– Senar-emazteak ta bixia	16
– Alkatea zeruko bortan	18
– Peru eta Maria	20
– Alfer Zin	22
– Aitabitxia	24
– Alaba eta alabaizuna	26

– Mendiondoren mutilak	29
– Doistuko xantrea	32
– Bixinaritzeko ostatuan	34
– Baigorriin, astoak astronomo	36
– Barkatu!... uste nuen	38
– Ohoina baino ohoinago	40
– Ikazkina eta herioa	42
– Gasnen ebaslea	44
– Berriatuko atabalaria	46
– Ezkont hadi... ezkont	48

Horra Belokeko fraidetxean gaindi egin ahal izan dugun bilketa larri baten berri. Beste asko ere izango ziren zerrenda horretan beharrak. Horiek dira lehen bilaketa batean eskuperat etorri zaizkigunak. Ahantzi ditugunez bestalde, utzi ditugu aipatu gabe beste batzu, ez jakinez non klasa, hala nola Piarres Narbaitzen *Kattalinen gogoetak*, Xipri Arbelbide heletarraren batzu, Junes Casenave, J.B. Etcheberry Donoztirikoarenak eta beste.

Ez ditugu ere kontutan hartu frantsesez kontaturik dauden Euskal Herriko ipuin eta kondairak, Guillaume Reicher Lapurdi Getariakoarenak bereziki, gure herriko ipuin hauen hitza edo hizkuntza ez zelako herri literaturan sartzen ahal alabaina. Aitortu behar da bizkitartean gureak dituztela horiek beren gustua, hatsa edo arnasa, erdaraz jauntzirik balinbadaude ere. Bestalde, seinalatzekoa da frantses itzulpenarekin publikatuak daudela Barbier eta Mayi Ariztiaren *Ixtorio-Mixterio* eta *Amattoren uzta*.

Beste ikuskizun batek ere klasifikatzen eta mugatzen du eman dugun zerrenda. Behar da ikusi nondik hartua den gure zerrenda: ez erakasle kurtso eta publikazio didaktiko batzuetarik, ez-eta intelektual maileko lanetarik, baizik iparraldeko agerkari herrikoietarik: etxe xoko eta sukaldeetan, neguko aratsez, denbora pasa bezala, guti irakurtzen duten aitona-amonek irakurtzekoak ziren papertxoetan hartuak maizenik. Hauetan daude *Almanaka*, honen egile *Herria* aldizkaria, Belokeko *Otoizlari* bezalakoak, herritar xoil eta xumeentzat eginak direnak orozgainetik.

Gure Herria batek bestelako maila merezi ote zuen? Bai eta ez. Hain luzaz iraunik, orain ixildua dugun aldizkariak (eta ez agian betiko!) harek ere hontan izan du naski, egundainotik, bere indarra: lurrari eta herriari beti hurbil dagoela, hainbeste ipuin, bertsu eta antzerki ekarriz bere orrialdeetan; idazten dugunek, ahal guziaz, herriari loturik egon behar genukeen bezala.

Horretan dugu hunkitzen hain zuzen gure ipuinen ekarketa eta baitezpadako lekua. Ez da gure ipuina hitz josteta bat, ez da denbora pasagailu goxo bat bakarrik, atsegabeen ahanzteko xoil-xoilik asmatua, nahiz hau

ere garrantzia haundikoa dugun denek noiz edo noiz. Mayi Ariztiak erakusten du bere hitzaurrean etxeko haurren atsegina ipuinak entzutean aratsetan etxeko neskatoaren ahotik eta asmatzerat uzten du ohidura horren eragina. Neskatoak (lehen) edo amatxik, edo amak (orain) haurrari lo egiterakoan kontaktzen dion ipuintxoak baliorik ez dauka iduriz, baina iduriz bakarrik. Egunez egun, aratsez arats, ipuinez ipuin, kondairaz kondaira, horiekin ere hazten, moldatzen eta apaintzen da haurraren izpiritua, modu batera eta ez bestera: gure herriko modura, gure euskaldun modura, hots, eta ez beste sorbideko batzuen modu eta moldera. Haur hura gero ere markatua izango da, ez da edozein haur izango, ez diote nolana hiko kontakizun, ixtorio, kirola mota ez ahusagailuk inarrosiko barrena baina gureek izango dute beti haren baitan lehenasuna, bera ttiki ttikitik haietaz hazia izana delako.

Gure zuhurtzia eta gatzia

Kezka haundi batean uzten gaituzte halere holako gogoetek: norat buruz doanetz ote gure gaurko euskal gizona, lehen ez bezalako giro eta hazkurritz delarik hazia; gogo-izpiritu-ametsetako hazkurri mota batzuek gabeturik ez ote den ote berea zuen hartarik husten ari gure gizona.

Itxurak eta azala badauzkagu bai beti, euskaldunarenak, euskaraz mintzo ere bai eta euskara beti ikasten gutarik askok (baina askok bakarrik, aldiz herri osoak?). Barreneko sendikuntza harek ditu kezkek ematen, ez ote denetz bere berezien hartarik bihotz gabetzen hasia: azala beti euskaldunarena eta mamia gero-ta erdaldunago, gero-ta atzerritartuago nolazbait, beraz ez bera, baizik beste bat... Kezka horri datxikolako bat zuen aspaldi, baina mintzaira mailakoa bakarrik hura, Basarri batek erakutsi *Zeruko Argian*. Oharturik hi-ka-ko hori galtzen ari zutela gaurko ainitzek herrian, hasi zen bera, erakustea gatik, artikulu batzuk hi-ka egiten “Nere bordatxotik” sailan. Berdin-berdina da, eta garrantzia haundiagokoa, gaurko euskaldunak ez euskaldun pentsatzea euskaraz mintzo eta euskaraz idatzirik ere. Eta hemen bazuten gure ipuinek beren zere-ekarria, berezia daukaten pentsaera eta zuhurtzia batekin, ez baitu beste izenik: euskal zuhurtzia edo euskal arima.

Ez beldur izan ordean zu, entzule edo irakurlea; ez uste izan lehen-go gaztaina erretzaile eta talo egileen denborarat itzularazi nahi zaitugunik gaurko biziaren erdian. Lehengoak lehen ziren, gaurkoa da gurea eta hemengo garai eta bizian da gurea; baina gurea ginaukan zuhurtzia haren “hari” beretik nahi eta behar dugu gaurko zuhurtzia, eta biharkoa, gaurko sorkuntzatik biharko herria eginen duena. Horretarako, lehengoan galdurik ez gaitela egon baina lehengoan oroimena ere ez dezatela gal gure herriko umeek, hori eta hori da gure herriaren “haria” deitzen duguna.

Hona, azkenik, zertarat zoan gure solas xumea: badugula gaurko egunean guk zer egin, liburutegi xokoetan ez utziz betikotz lo eta mutu

gure arbasoek, aitatik semera eta amonatik ilobatxorat ahoz eta kontaketaz irauarazi zuten zuhurtzia ederra: eder edo ez, hori da gurea eta horrek ematen dio bere egiazko edertasuna.

Ez dira, egia erran, indar eta balio berekoak gure ixtorio mixterio xahar guziak. “Zerbitzari” baten ixtorio xoragarri batzuek, bereziki idazkuntzaren literario mailan, ez dute beste askoren balio bera baina ez da beti, edo ez da bakarrik, letran eta estiloan gure ipuin zaharren aberastasan guzia, hemen erakutsi dugun bezala, nahiz ongi idatziak grazia gehiago balinbadu ere. Euskaldunen barnea, izpiritua, asmamoldea, eta nortasuna berdin, sala eta bero detzazkete mailik xumeeneko kondairek.

Hau da beraz dei bat gure ustez zenbaitek bederen pozik entzungo dutena: ager ditzen ager, gehiago, jada agertuak direnen gainera, gure ipuin zaharren berrargitarazleak eta ezar ditzen holako gaiak esku guzien menean, zinez plazaraturik, gure herri-ipuinak. Hainbeste baitira, hautu batzuk egin daitezke eta badauzkagu irakurleak bila dabiltzanak: erran dugun “hari” horren ez galtzeko batetik, gure mintzaira, herrikoitasun eskasez, hainbeste pobretzen eta hozten ari zaigun mende honetan. Euskararen irakurleak askotan xaharrak ditugula Iparraldean, hori ez dezaket uka eta eskerrak dizkiegu halere gure xaharrei, hauek baitigute orain artean “haria” hausterat ez utzi. Baina gazteak ere baditugu, gero ta gehiago gisa batez, euskara nahi dutenak, esperantza hori dugu herriko jaki onaz haztekoa guk egun, gerokoak geroko: bihar, geroak bereaz eginen du.